

PRENTSA OHARRA

**Tabako bako XVIII. Krosa Mungian datorren barikuan, maiatzaren 27an**

- Hitzordua hilebete osoan zehar egiten ari dan Osasunaren Alde ekimenaren barruan dago.
- Mungiako Udaleko Adikzinoen Prebentzinorako Zerbitzuak, Mungia Atletismo Taldeak, Mungia Saskibaloia Taldeak eta Mungialdeko Kurutze Gorriak bat egin dabe Tabako Bako Munduko Eguna dala eta familiei zuzenduta antolatu dan lasterketa horretan

**Mungian, 2022ko maiatzaren 24an.**- Maiatzaren 31n urtero egiten dan Tabako Bako Munduko Eguna dala eta, eta maiatza osoan Osasunaren Alde Programan gauzatzen diran ekintzen barruan, Mungiako Udaleko Adikzinoen Prebentzinorako Zerbitzuak, Mungia Atletismo Taldeak, Mungia Saskibaloia Taldeak eta Mungialdeko Kurutze Gorriak barikurako, maiatzaren 27rako, tabako bako XVIII. Krosa antolatu dabe.

Alaitz Erkoreka Lurralde eta Ingurumen Arloko alkateordeak azaldu dauenez, “maiatza osoa daroagu beharrean mungiarren artean bizimodu osasungarria sustatzeko eta gure umeei tabakoa ez dala osasunerako ona irakasteko. Horregaitik, bariku honetako lasterketan parte hartzera konbidetan zaituegu. Ganera, arratsalde osoan zehar tailerrak eta jolas- eta kirol-jarduerak izango dira (altura-jauzia, luzera-jauzia, lehen laguntzetako tailerra, etab.), arratsalde osasungarria eta jai girokoa igaroteko”.

Lasterketak Matxin Enparantzatik urtengo dau eta kategoria bi izango ditu, adinaren arabera: 18:45ean 2014 eta 2018 artean jaiotakoen txandea izango da eta 19:15ean 2010 eta 2013 artean jaiotakoena.

Izen-emotea doakoa izango da eta amaitzean opari bat eta jaki eta edari osasungarriak banatuko dira.